

Prentsa oharra

Nota de prensa



152 METRO BARANDA BERRITUKO DITUZTE KONTXAKO 2. FASEAN

- **Jarduketa honen kostua 1.079.964 eurokoa da**

Kontxako baranda berritzeko bigarren fasea irailean hasiko da, eta 1.079.964,38 €-ko kostua izango du, kostaldeak % 50ean finantzatuta.

Hiri Proiektuen zinegotziak, Duñike Agirrezabalaga sozialistak, gogorarazi duenez, "fase hau iaz atzeratu zen, pandemiak hirian sortzen zituen beharrei erantzuteko beste proiektu eta jarduera batzuekin batera. Orain, Kontxako baranda, Donostiako enblemetako bat, berritzeko lanari ekingo diogu".

Bigarren fase honek Antiguako tunelaren ondoren hondartzara sartzeko bigarren eskaileraren eta Eguzkiren instalazioen arteko tartea hartzen du. 152 metroko baranda aldatuko da. Gainera, baranda kokatuta dagoen kostaldeko horma konpondu eta indartuko da. Horretarako, aldamio bat jarriko da pasealekuaren gainean "zintzilik", lehen fasean egin zen bezala.

Prentsa oharra

Nota de prensa

"Gogoratu behar da orain esku hartuko den zati honetan aspaldi antzeman zirela zenbait kalte, eta, ondorioz, pasealekuan eta barandaren ondoan babes-elementuak jarri behar izan ziren, edozein arrisku saihesteko", adierazi du Agirrezabalagak.

Jarduketa honetan ere, baranda zatiak alboetan eusten dituzten ostikoak konponduko dira, eta pasealekuko zoladura berrituko da, zeina handitu egingo baita.

Kontxako baranda zati bat ere aldatzea aurreikusi da, hondartzara sartzeko eskaileretako batean. 8 bolutako pieza inklinatu berezia izango da.

Hiri Proiektuen zinegotziak adierazi duenez, "bigarren fase honetan sartu dugun beste berrikuntza garrantzitsu bat Kontxako pasealekua ixten duen farola berritzea da, Ondarretara sartzeko arrapalaren ondoan, Tennis ondoan. 2014ko otsailean denborale gogor batek atera zuen farola hori hitzez hitz, eta, zati batzuk berreskuratu ahal izan ziren arren, zaila izan zen hura zaharberitzea, galdaketan egin behar baitziren falta ziren eta molderik ez zuten piezak. Berria egin eta farola berriz jartzea oso garestia zen. Azkenik, obra fase honetan sartzea erabaki da, eta, beraz, urte batzuk geroago, Ondarretako farola bere lekura itzuliko da".



Prentsa oharra

Nota de prensa



Juan Rafael Alday arkitekto nagusiak diseinatutako Kontxako baranda 1910ean jarri zen.

2004an, Nautikoa eta Kontxako lehenengo arrapalaren arteko zatia berritu zen. 2016an Cervantes plaza eta La Perla arteko zatia berritu zen. Iaz, konfinamendu betean, Antiguako tunelaren eta hondartzarako bigarren jaitsieraren arteko zatia berritu zuten, eta, orain, falta zen zatiarekin amaitu dute lan guztia.

Kontxako baranda berritzeko bigarren fasea Moyua enpresari esleitu zaio, eta, aldi berean, pasealekuko bidegorriaren trazadura berria eta San Martin, Zubieta eta Easo kaleetako trafiko-aldaketak handituko ditu.